

TOLOSA / 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' abian da Galtzaundiren eskutik

Uztailaren 25era arte liburu bat maileguan hartzen duenak %25eko beherapena izango du Elkar liburudendan.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak Irakurri, Gozatu eta Oparitu Tolosan! egitasmoa abiarazi zuen pasa den hilean. Galtzaundik Tolosako liburutegiekin eta Tolosako Elkar liburudendarekin elkarlanean gauzatu du proiektua. Funtzionamendua uztailaren 25era egongo da martxan eta Tolosako edozein udal liburutegitan euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurtzen dutenentzat zuzendu dute. Testua testua testua testua testua testua.

Hain zuzen, liburua itzultzean, liburuazainak emandako fitxa bete behar da, liburuari buruz iritzia emanez. Adin tarte bakoitzeko fitxa bana egongo da, eta txikienen kasuan heldu batek beteko dio formularioa. Fitxa betetakoan, liburuazainak opari-txeke bat emango dio irakurleari. Honekin, %25eko beherapena egingo diote Alde Zaharreko Aroztegieta kaleko Elkar liburudendan euskarazko edozein liburu erosterakoan.

Ekimenaren helburuak

Irakurzaletasuna bultzatzearekin batera, xede gehiago ere ukitzen ditu Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoak; batetik, euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi du, eta kulturak eman dezakeen plazera aldarrikatu.

Bestalde, euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtu nahi ditu egitasmoak. Halaber, aurrera eramango dutenen elkarlana ere jada baba lortutako helburu bat. Eta azkenik, Irakurri Gozatu eta Oparitu programaren bidez, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta ere sustatu nahi dituzte.

Liburu gomendagatuen zerrenda osatu du Galtzaundik

Topaguneak euskarazko 100 liburu gomendatzeko eskumena hartu du. Uxue Alberdi idazleak osatu du 90 liburu gomendagarriren zerrenda. Galtzaundi Euskara Taldeak, bere aldetik, beste hamar liburu gomendagarri gehitu dizkio zerrenda horri.